



Usurbilgo Udala

Data: 2023/05/25

2023KO MAIATZAREN 25EAN EGINDAKO OHIKO UDALBATZAREN BILKURAKO AKTA

BERTARATUAK

Alkate-Lehendakaria

Agurtzane Solaberrieta Mesa

Zinegotziak

Beñat Larrañaga Urdanpilleta
Lur Etxeberria Gurrutxaga
Joxe Mari Iribar Zapirain
Ainhoa Arrozpide Landa
Luken Arkarazo Silva (4. puntuan bertaratu da)
Itziar Basterrika Unanue
Josune Urkola Larrarte
Mirari Azurmendi Sorazu
Carlos Pérez Fraisoli

Idazkaria: Garazi Etxeberria San Miguel.

Kontu-hartzailea: Gorka Lizarraga Erro.

Ez dira bertaratu: Oskar Santamaria Pikabea, Andoni Atxega San Sebastian eta Francisco José (Patxi) Suárez Pérez.

Arratsaldeko 18:00etan batzarrari hasiera eman zaio.

Usurbilen, 2023ko maiatzaren 25ean arratsaldeko 18:00etan, Udaletxeko Pleno Aretoan, Usurbilgo Udaleko ohiko Udalbatza Plenoa egiteko goian adierazten direnak lehen deialdian bildu dira.

Bertaratuak bezala goian agertzen diren zinegotziak batzarkide direlarik, Agurtzane Solaberrieta Mesa izan da batzarburua.

1.- AURREKO BILKURETAKO AKTEN ONESPENA.

1.1.- 2023KO MARTXOAREN 30EKO BILKURAKO AKTA.

Batzarkideek 2023ko martxoaren 30eko bilkurako akta aho batez onartu dute.



Usurbilgo Udala

Data: 2023/05/25

1.2.- 2023KO APIRILAREN 27KO BILKURAKO AKTA.

Batzarkideek 2023ko apirilaren 27ko bilkurako akta aho batez onartu dute.

2.- ALKATETZAKO DEKRETU HAUEN BERRI EMATEA: 2023KO APIRILAREN 24TIK MAIATZAREN 19RA (2023/400-2023/506).

Alkatetzak 2023ko apirilaren 24tik maiatzaren 19ra bitartean (2023/400-2023/506) egindako dekretuen berri eman zaie bertaratutakoei.

Zinegotziak jakinaren gainean geratu dira.

3.- GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIKO OGASUN ETA FINANTZA DEPARTAMENTUAREN ETA USURBILEKO UDALAREN ARTEAN ZERGA INFORMAZIOA ELKAR TRUKATZEKO ESPARRU HITZARMENERA ATXIKITZEA.

Alkateak adierazi du Ogasun batzordetik datorrela gai hau. Foru Aldundiak udal guztiei egiten dien proposamena dela eta hitzarmen honen bitartez Foru Aldundiko Ogasun eta Finantza Departamentuaren eta Usurbilgo Udalaren arteko zerga informazioa elkar trukatea ahalbideratu nahi dela esan du.

Batzarkideek Ogasun batzordearen irizpena aztertu dute eta aho batez onartu dute, honela dio:

“ZIOEN AZALPENA

I. Gipuzkoako Foru Aldundientzat eta udalentsat beharrezkoa da datu jakin batzuen lagapenerako sistema egonkor eta elkarrekikoa jartzea, beraiei esleitutako zereginak garatzeko eta eskumenak betetzeko.

II. Zerga datuei dagokienez, trukeek Zergen Foru Arau Orokorra bete behar dute beti, eta, pertsona fisikoei dagokienez, baita datu pertsonalak babesteko legeria ere.

III. Alde horretatik, zerga araudiak zergapekoei aitortzen die eskubidea dutela, legeak ezarritako baldintzetan, Zerga Administrazioak eskuratzen dituen datu, txosten edo aurrekariak isilpekoak izateko, eta Administrazioak ezin dizkie hirugarrenei utzi edo jakinarazi, legeetan aurreikusitako kasuetan izan ezik, eragindako zergadunak baimenduta zein baimendu gabe.

Zerga informazioa isilpean gordetzea zergapekoen intimitatea zaintze aldera ezartzen den eskubidea da, eta Ogasun eta Finantza Departamentuari dagokio eskubide hori babestea bere esku dituen baliabide juridiko eta material guztiak erabilia.



Usurbilgo Udala

Data: 2023/05/25

IV. Beste aldetik, urriaren 1eko 40/2015 Legeak, Sektore Publikoaren Araubide Juridikoari buruzkoak, 141. artikuluan aurreikusten du administrazio publikoek elkarlanean jardun behar dutela. Artikulu horren 1.c) puntuak dio gainerako administrazioei behar duten informazioa emango dietela beraien eskumenak gauzatzeko beharrezkoa denean.

Gipuzkoako Foru Aldundiaren eta Gipuzkoako Lurralde Historikoko udalen arteko lankidetzak horri esker, efizientzia administratiboa hobetu daiteke eta 39/2015 Legean ezarritako baldintzak bete daitezke, hala nola herritarrek administrazio jardulearen esku dagoen edo beste edozein administrazio egindako dokumentazioa ez aurkezteko duten eskubidea, besteak beste.

Aipatzekoa da Nisae plataforma martxan jartzeak administrazio publikoen arteko zerga datuak trukatzeko lankidetzan izan zuen bultzada. Hala ere, plataforma honek ez ditu informazioa trukatzeko behar guztiak betetzen.

Esparru hitzarmen honen helburua da Nisae plataforma bidez egin ezin litezken informazio trukaketei estaldura ematea da. Horretarako, udal bakoitza esparru hitzarmen honi atxiki ahal izango zaio.

V. Azaldutako guztiagatik, bi aldeek onartu egin dute izenpetzea lankidetzak hitzarmena.

Ogasun eta Finantza Departamentuaren eta Usurbileko Udalaren artean, zerga informazioa elkar trukatzeko esparru hitzarmena aztertu eta gero, Ogasun Batzordeak, (maiatzaren 16ean) egindako bilkuran Aldeko bozkak EHBildu (2), PSE (1) eta EAJ (1), egindako irizpena kontuan hartuta, Udalbatzarrak honako erabakia hartu du aho batez:

ERABAKIA

LEHENENGO: Ogasun eta Finantza Departamentuaren eta Usurbileko Udalaren artean, zerga informazioa elkar trukatzeko esparru hitzarmenera atxikitzea onartzea.”

Honela izan da bozketa:

Aldeko botoak: Agurtzane Solaberrieta Mesa, Beñat Larrañaga Urdanpilleta, Lur Etxeberria Gurrutxaga, Joxe Mari Iribar Zapirain, Ainhoa Arrozpide Landa, Itziar Basterrika Unanue, Josune Urkola Larrarte, Mirari Azurmendi Sorazu eta Carlos Pérez Fraisoli.

Beraz, erabakia aho batez hartu da.

4.- 8. ORDENANTZA FISKALA, ZERBITZUAK ESKAINI EDO UDAL JARDUERAK BURUTZEAGATIKO PREZIO PUBLIKOAK ARAUTZEN DITUEN ERANSKINEKO C ATALA ALDATZEA.



Usurbilgo Udala

Data: 2023/05/25

Beñat Larrañagak adierazi du denek dakiten bezala Eusko Jaurlaritzak Partzuergoko Haurreskolen doakotasuna iragarri zuela 2022. urtea amaitu aurretik. Albistea komunikabideetan irakurri zutenetik informazioa eskuragarri jarriko zutela espero zutela esan du, baina ikusita informazioa ez zela iristen han eta hemen informazio eske hasi zirela. Tartean, Partzuergoan otsailean kontsulta bat egin zutela esan du eta aurreko astean jaso zutela erantzuna. Ikusita martxoan ez zutela erantzunik jasotzen, Eusko Jaurlaritzara, Bildarraitz Hezkuntza sailburuari, plangintza arduradunari eta Partzuergoko gerenteari modu ofizial batean gutun bat bidali zitzaieela esan du bilera bat eskatuz eta gaur dela eguna ez dutena erantzunik jaso.

Beñatek jarraitu du esanez Eusko Jaurlaritzaren erabaki horrekin finantziazioaren ikuspuntutik diskriminatuta zeuden titulartasun publikoko udal haurreskolak are eta egoera okerragoan utzi dituztela. Izan ere, udal haur eskolen finantziaziorako bideratzen duten dirulaguntzek Usurbilgo haur eskolaren bolumen ekonomiko osoaren %50a baino gutxiago finantzatzen baitute gaur egun.

Eusko Jaurlaritzatik 0-2 etaparen unibertsalizazioarekiko hartutako erabakiarekin, zeinarekin bat egiten duten esan du, espero zitekeela dio udal haur eskolekin ere berdin jokatzera, titulartasun publikokoak direla inork ezingo baitu ukatu. Baina zoritxarrez, informazio faltaz gain udal haur eskolen trataera bere horretan utzi dutela salatu du.

Hartu duten erabakian eta gaurko proposamenean sartu aurretik, pare bat datu eman ditu Beñatek. EAE guztian 13 udal haur eskola daudela dio eta hauen finantziaziorako Eusko Jaurlaritzak aurten 3.200.000 euro bideratu dituela zehaztu du, Usurbilgo kasuan 170.584 euro, bolumen osoaren %48,80a. Baina aipatutako 13 udal haur eskolak %100ean finantzatzeko dirulaguntza hori Eusko Jaurlaritzak bikoiztu egin beharko lukeela adierazi du. Hori zalantzarik gabe diru asko dela dio, baina Partzuergoko aurrekontua 66.000.000 eurokoa dela jakinik edo Eusko Jaurlaritzako aurrekontua 14.500 milioi euro ingurukoa dela jakinik, ez zaiela esfortzu handiegia denik iruditzen azpimarratu du familia usurbildarrei ezarri zaien diskriminazio egoera eta haien zama ekonomikoa arintzeko.

Horregatik eta ariketa arduratsu bat eginez, familia usurbildarrek ez dezaten diskriminazio hau denbora gehiagoan jasan, Udalak gain esfortzu bat egingo duela datorren ikasturteari begira eta familien kuoten %62 beregain hartuko duela esan du, beste haur eskoletan ematen diren errealitateekin parekatuz. Hau zenbakitara ekarriz, honek suposatuko duela dio Udalak 210.000 euro bideratuko dituela datorren ikasturtean haur eskolako zerbitzura, ikasturte honekin konparatuz 122.000 euro gehiago.

Hau guztia bideratu ahal izateko planteatzen dutena da ordenantza fiskaletako tasen murrizketa bat.

Momentuz urtebeterako erabakia dela esan du, kontratuak urtebeteko iraupena baitu, ikusi beharko dela dio irailtik aurrera Hezkuntza sailak erantzuten ote duen, eta 2024-25 ikasturteari begira zer aukera egon daitezkeen argitzen joan beharko dutela esan du.



Usurbilgo Udala

Data: 2023/05/25

Josune Urkolak galdetu dio aurreko astean Partzuergotik jasotako erantzunak zer dion.

Beñat Larrañagak erantzun dio erantzunean esaten zela Partzuergoan sartu nahi bada eskaera egin behar dela, hitzarmen bat sinatu beharko dela eta Udalak kargu egin beharko lukeela eraikinaz eta bere mantenuaz. Gaineratu du bertako langileen egoera ere ez dela erraza. Azpimarratu du erabakiak hartu behar izan dituztela erantzuna jaso baino lehenago. Inongo momentutan ez zaiela ahalbideratu dio hurrengo ikasturtean Partzuergora pasa ahal izateko aukerarik.

Batzarkideek Ogasun batzordearen irizpena aztertu dute eta gehiengoz onartu dute, honela dio:

“ZIOEN AZALPENA

Batzordeburuak emandako azalpenetan haurreskolen partzuergoak zerbitzuaren doakotasuna publiko egin duela eta usurbildarrek, udal haurreskola udalaren jabetzakoa izanik eta partzuergoaren baitako beherapenetara loturik ez egoteak sortzen zituen ezberdintasunak ekidite aldera prezio publikoaren %62ko murrizketa proposatu du.

Murrizketa horrekin partzuergoko erabiltzaileek ordainduko dutenaren parekotasuna lortuko dela aurreikusten da, hauek, jana ordaintzen jarraituko baitute. Zerbitzuaren dirusarrera gutxitzeak udalak dirusarrera orokorrekin beteko du, 120.000 eta 125.000 euro gehiago estimazioa bat egiten da 2.023-2.024 kurtsorako eta bi aurrekontuei eragingo die 2.023 eta 2.024.

8. Ordenantza Fiskala, Zerbitzuak eskaini edo udal jarduerak burutzeagatiko prezio publikoak arautzen dituen eranskineko C atala aldatzea aztertu eta gero, Ogasun Batzordeak, (maiatzaren 16ean) egindako bilkuran Aldeko bozkak EHBildu (2), PSE (1) eta abstentzioa EAJ (1), luzatutako irizpena kontuan hartuta, Udalbatzarrak honako erabakia hartu du gehiengoz:

ERABAKIA

LEHENENGO: 8. Ordenantza Fiskala, Zerbitzuak eskaini edo udal jarduerak burutzeagatiko prezio publikoak arautzen dituen eranskineko C atala aldatzea hasieraz onartzea.

BIGARREN: Erabakia Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean 30 eguneko epealdian jendaurreko informazioan jartzea.”

Honela izan da bozketa:



Usurbilgo Udala

Data: 2023/05/25

Aldeko botoak: Agurtzane Solaberrieta Mesa, Beñat Larrañaga Urdanpilleta, Lur Etxeberria Gurrutxaga, Joxe Mari Iribar Zapirain, Ainhoa Arrozpide Landa, Luken Arkarazo Silva eta Itziar Basterrika Unanue.

Abstentzioa: Josune Urkola Larrarte, Mirari Azurmendi Sorazu eta Carlos Pérez Fraisoli.

Beraz, erabakia gehiengoz hartu da.

5.- 5. ORDENANTZA FISKALA, HIRILURREN BALIO GEHIKUNTZAREN GAINEKO ZERGA ARAUTZEN DUEN 7.ARTIKULUA ALDATZEA.

Kontu-hartzaileak adierazi du 5. Ordenantza Fiskaletan aldaketa tekniko bat egitea proposatzen dela eta horren zergatia azaldu du. Momentu honetan Usurbilgo Udalak onartuta dituen gainbalioen koefiziente maximoak Foru Aldundiko Ogasunak Aurrekontu Arauean urtero aldatu egiten dituela esan du eta Aurrekontu Arau hori normalean etortzen dela dio udaleko ordenantza fiskalak onartu ondoren. Ondorioz, berriz ere plenora ekarri beharko liritekeela dio ordenantza fiskalak koefizienteak aldatu eta berriak onartzeko, berriz argitaratu etab. Aldundiak ahalbideratzen duen aldaketa honekin, alkateak koefiziente horiek aldatzeko ahalmena izango duela azpimarratu du, baina hori egiteko bakarrik zehaztu du.

Batzarkideek Ogasun batzordearen irizpena aztertu dute eta gehiengoz onartu dute, honela dio:

“ZIOEN AZALPENA

2021aren amaieran onartu zen 7/2021 Foru Dekretu-Araua, Hiri Lurren Balio Gehikuntzaren gaineko Zergari buruzko uztailaren 5eko 16/1989 Foru Araua Konstituzio Auzitegiaren jurisprudentziara egokitzen duena. Egokitzapen horrek eragina izan zuen, besteak beste, aipatutako 16/1989 Foru Arauaren 4.3 artikuluan, zerga horretan aplikatu beharreko gehieneko koefizienteei buruzkoan.

Koefiziente horiek urtero eguneratu daitezke Gipuzkoako Lurralde Historikoko aurrekontuei buruzko foru arauen bidez.

Testuinguru horretan, Gipuzkoako Lurralde Historikoaren 2023ko Aurrekontu Orokorra onartzen dituen 6/2022 Foru Arauaren laugarren xedapen gehigarriak ezartzen ditu, 2023ko urtarrilaren 1etik aurrerako indarraldiarekin, sortzapenaren unean lurzoruaren balioari aplikatu beharreko koefizienteen gehieneko zenbatekoak.

Espero izatekoa da datozen urteetan ere gehieneko koefizienteak eguneratu egingo direla, eta horren argitalpen data udala ordenantzaren aldaketa izapidetzen hasi eta gero gertatzea.



Usurbilgo Udala

Data: 2023/05/25

Horregatik, orain proposatzen den aldaketarengatik, saihestu nahi da udalak ordenantza bi aldiz izapidetu behar izatea, gehieneko koefizientea eguneratu izanagatik eta honela alkatea dekretuz ahalbidetzea aldaketa horiek egin ditzan.

5. Ordenantza Fiskala, Hirilurren Balio Gehikuntzaren gaineko Zerga arautzen duen 7.artikulua aldatzea aztertu eta gero, Ogasun Batzordeak, (maiatzaren 16ean) egindako bilkuran Aldeko bozkak EHBildu (2), PSE (1) eta abstentzioa EAJ (1), luzatutako irizpena kontuan hartuta, Udalbatzarrak honako erabakia hartu du gehiengoz:

ERABAKIA

LEHENENGO: 5. Ordenantza Fiskala, Hirilurren Balio Gehikuntzaren gaineko Zerga arautzen duen 7.artikuluaren aldaketa hasieraz onartzea.

BIGARREN: Erabakia Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean 30 eguneko epealdian jendaurreko informazioan jartzea.”

Honela izan da bozketa:

Aldeko botoak: Agurtzane Solaberrieta Mesa, Beñat Larrañaga Urdanpilleta, Lur Etxeberria Gurrutxaga, Joxe Mari Iribar Zapirain, Ainhoa Arrozpide Landa, Luken Arkarazo Silva eta Itziar Basterrika Unanue.

Abstentzioa: Josune Urkola Larrarte, Mirari Azurmendi Sorazu eta Carlos Pérez Fraisoli.

Beraz, erabakia gehiengoz hartu da.

6.- UDAL ARAUTEGI ORGANIKOAREN ALDAKETA (II. ERANSKINA. KIDE ANITZEKO ORGANOEN FUNTZIONAMENDU ELEKTRONIKOA) (ESP.: 2023IDOR0006).

Alkateak adierazi du denbora luzea daramatela Udalean modu elektronikoa funtzionatu ahal izateko bidea egiten eta norabide horretan hainbat eta hainbat urrats egin dituztela esan du. Bide horretan, oraingoan Udal Arautegi Organikoaren II. Eranskin honekin Udaleko erabaki organoen funtzionamendu elektronikoa jarri nahi dela esan du.

II. eranskin horretan jasotzen dela dio Tokiko Gobernu Batzarra, Udalbatza Osoa eta Informazio Batzordeak nolakoak izango diren, deialdiak nola egingo diren eta bilkuretako aktak ikus-entzunezko aktak eta paperezkoak izango direla.

Gaineratu du modu honetan funtzionatzeak suposatzen duela zinegotzi bakoitzak bere gailua edukitzea eta asmoa dela dio korporazio berriko hautetsi bakoitzak bere tablet edo ordenagailua edukitzea.



Usurbilgo Udala

Data: 2023/05/25

Josune Urkolak galdetu du ea plenoak eta batzordeak publikoak diren.

Idazkariak erantzun dio plenoak publikoak direla, Konstituzioak aipatzen dituen kasu konkretu batzuetan ezik. Batzordeak, berriz, ez direla publikoak esan du, orain arte bezala. Idazkariak zehaztu du Barne Araudiak aldaketa sakon bat eskatzen duela bere txostenean jasotzen den moduan, baina gaur egun indarrean dagoen Barne Araudian jasotzen dela dio informazio batzordeak ez direla publikoak.

Plenoko bideo-aktak publiko izango direla esan du plenoak publikoak direlako, baina batzorde informatzailetako bideo-aktak ez, azken hauek ez direla udalaren web orrian eskegiko esan du.

Batzarkideek Antolakuntza batzordearen irizpena aztertu dute eta aho batez onartu dute, honela dio:

“Ikusirik

Usurbilgo Udala bere funtzionamendua era elektroniko baten garatzeko bidea egiten ari da. Funtzionamendu hori, administrazio elektroniko izaera, tresna gisa ulertuta, legez derrigor izan beharreko izaera da, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidea arautzen duen 39/2015 Legea eta Sektore Publikoaren Araubide Juridikoaren 40/2015 Legeak, eta horiek garatzen dituzten 203/2021 Erregelamendua eskuan hartuta (beste hainbat garapen dekretu ere aintzat hartu beharrekoak dira).

Bide horretan hainbat lan egin dira, udal funtzionamendua modu elektronikoan bideratze aldera: espedienteak modu elektroniko batean kudeatzeko lanketa oinarri duen sistema abiatuta, udal prozesu eta egitekoak era horretara bideratu ahal izatea da helburua: osoki elektronikoki funtzionatu ahal izango duen Udala.

Funtzionamendu hori bideratu ahal izateko tresnak jarrita, oraingo honetan organo kolegiatu edo kide-anitzen funtzionamendu elektronikoa arautzeko beharra jarri da mahai gainean. Izan ere, tresnak probestu bai, baina arautu ezean, horien bidez egindako lanen eta erabakien baliozkotasun juridikoa zalantzan legoke. Segurtasun juridiko eza ekiditeko dator Barne Araudi Organikoaren aldaketa proposamena.

Idazkariak gaiari buruzko eta jarraitu beharreko prozedurari buruzko txostena eman du, eta espedientean jasota geratu da.

Kontuan harturik

Aplikatu beharreko oinarrizko araudia honako hau da:

- Toki Araubidearen Oinarriak Arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legea



Usurbilgo Udala

Data: 2023/05/25

- 39/2015 Legea, urriaren 1ekoa, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearena.
- 40/2015 Legea, urriaren 1ekoa, Sektore Publikoaren Araubide Juridikoarena
- Toki Araubideari buruz Indarrean dauden Lege Xedapenen testuategina onartzen duen apirilaren 18ko 781/1986 Legegintzako Errege Dekretua.
- 2568/1986 Errege Dekretua, azaroaren 28koa, Toki Erakundearen Antolaketa, Funtzionamendu eta Araubide Juridikoaren Erregelamendua onartzen duena
- 2/2016 Legea, apirilaren 7koa, Euskadiko Toki Erakundeei buruzkoa.

Osoko Bilkurari dagokio Udal Araudi Organikoaren aldaketa onartzea, Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legeak 22.2.d) artikuluan ezarritakoaren arabera. Udal Araudi Organikoa bertan aurreikusitako epe jakin edo mugagabearen arabera da.

Gai hau onartu ahal izateko, Osoko Bilkuraren gehiengo osoa behar da, 7/85 Legeko 47.2.f artikulua arabera.

Jarraitu beharreko prozedurari dagokionez, aipatu legeko 49. Artikuluan jasotakoa izan behar da kontuan, hau da:

- “a) Osoko bilkurak hasierako onarpenera ematea.*
 - b) Gutxienez 30 egunetan jendaurrean jarrita izatea eta interesdunei entzunaldia ematea, erreklamazioak eta iradokizunak aurkez ditzaten.*
 - c) Epe barruan aurkeztutako erreklamazio eta iradokizun guztiak erabakitzea eta osoko bilkurak behin betiko onarpenera ematea.*
- Inolako erreklamazio edo iradokizunik aurkezten ez bada, ordura arte behin-behinekoa zen erabakia behin betikoa dela ulertuko da.”*

Prozedura araudi edo erregelamenduen onarpenerako aurreikusitakoa da; hauen aldaketak egiteko, jarraitu beharreko prozedura berdina da.

2023ko maiatzaren 16an egindako Antolakuntza Batzordean ebazpen-proposamen honen bozketak emaitza hau izan du:

Aldeko botoak: Agurtzane Solaberrieta Mesa, Beñat Larrañaga Urdanpilleta, Josune Urkola Larrarte eta Patxi Suárez Pérez.

Honenbestez, Antolakuntza Batzordearen irizpena kontuan hartuta, Udalbatzarrak honako erabakia hartu du aho batez:

ERABAKIA

Lehenengoa.- Usurbilgo Udal Araudi Organikoaren aldaketa hasieraz onartzea, eranskinean jasotako idazkeran. (II. Eranskina titulua).

Udal Araudi Organikoaren gainerako zehaztapenak behin betiko onartu eta 2019ko irailaren 16ko Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratutako idazkeran mantenduko dira. Zubietako



Usurbilgo Udala

Data: 2023/05/25

Administrazioaren Osagarritzko Organoari dagokion I. Eranskina, berriz, 1995eko urriaren 5eko Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratutako idazkeran.

Bigarrena.- Erabakia Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean eta udaletxeko iragarki-oholean, udaletxeko web atarian, argitaratzea erabakitzea, herritarrek egoki iritzitako erreklamazioak eta/edo iradokizunak aurkeztu ahal izan ditzaten 30 egun balioduneko epean, aldizkari ofizialean argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.

Hirugarrena.- Aurkeztutako erreklamazio eta iradokizunei buruzko txostena egingo du Idazkaritzak, eta Osoko Bilkurari helaraziko dio dagokion baieستeko edo ezesteko proposamena, bai eta Udal Araudi Organikoaren aldaketa behin betiko onartzekoa ere, proposatutako baldintzetan.

Laugarrena.- Erreklamaziorik edo iradokizunik aurkezten ez bada, Udal Araudi Organikoaren aldaketa behin betiko onartutzat joko da.

Bosgarrena.- Behin betiko onespeneren erabakia edo, hala badagokio, kategoria horretara automatikoki igotako hasierako onespeneren erabakia, onartutako aldaketaren testu osoarekin batera, Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratzea.”

Honela izan da bozketa:

Aldeko botoak: Agurtzane Solaberrieta Mesa, Beñat Larrañaga Urdanpilleta, Lur Etxeberria Gurrutxaga, Joxe Mari Iribar Zapirain, Ainhoa Arrozpide Landa, Luken Arkarazo Silva, Itziar Basterrika Unanue, Josune Urkola Larrarte, Mirari Azurmendi Sorazu eta Carlos Pérez Fraisoli.

Beraz, erabakia aho batez hartu da.

7.- IGOR GORRITIRI ARTZABAL JUBILATU EGOITZAKO TABERNAREN KUDEAKETA ZERBITZUA EMATEKO KONTRATUAREN 2. LUZAPENA EGITEA ETA KONTRATISTAREN ONDORENGOTZEA.

Itziar Basterririk azalpenak eman ditu. Artzabal jubilatutako egoitzako tabernaren kontratua bost urterako zela esan du beste bost urtez luzagarria, urtez urteko luzapenekin. Oraingo honetan urtez urteko hirugarren luzapena egitea proposatzen dela esan du, 2023ko ekainaren 6tik 2024ko ekainaren 5ra.

Bestalde, lizitatzailak eskaera bat egin dutela zehaztu du, bera autonomia dela baina orain enpresa bat sortzea erabaki duela, SL bat hain zuzen ere, eta bere %100 hori enpresa horrek eramatea eskatzen du. Udalak baloratu duela dio hori horrela egiteko aukera baina bi baldintzekin, batetik, arrisku profesionalengatik 300.000 eurotako segurua izatea eta, bestetik, bai Igor Gorritik eta baita SL berriak ere, biek ala biek solidarioki erantzutea kontratu honen exekuzioaz.



Usurbilgo Udala

Data: 2023/05/25

Beraz, aipatutako bi baldintzak beteko balitu, Igor Gorritiri hori egiteko aukera emango zaiola esan du, taberna primeran kudeatzen baitu.

Batzarkideek Osasun eta Gizarte Zerbitzuen batzordeko irizpena aztertu dute eta aho batez onartu dute, honela dio:

“1.- AURREKARIAK

2016ko maiatzaren 10ean egindako ezohiko bilkuran erabaki zen Igor Gorritiri esleitzea Artzabal Eraikineko “Gure Pakea” jubilatuen tabernaren kudeaketa. 2016ko ekainaren 6an aipatutako esleipenaren kontratua sinatu zen.

Plegu administratiboetako 3.klausularen arabera *“Kontratuaren hasierako iraupena 5 urtetakoa izango da, hitzarmena izenpetzen den egunetik kontatzen hasita. Hala ere, kontratuaren indarraldia urtez urte luzatu ahal izango da, beste 5 urte gehiago, guztira 10 urte bete arte, Kontratazio Organoak berariaz hori erabakiko balu.*

Lehen bi luzapenak buruturik daude. Beraz, 2023ko ekainaren 5etik aurrera kontratazio organuak hirugarren luzapena gauzatzeko aukera du, Idazkaritza, Kontuhartzaitza eta Gizarte Ongizateko txostenetan oinarrituz. Hiru txosten hauek aldekoak izan dira. Kontratuaren jatorrizko kanonari dagokionez, hileko 1.600 euro (%21eko BEZ 336 euro, guztira 1.936 euro) izaten jarraituko du.

Bestetik, Kontratazio Teknikariak osatu duen beste txosten juridiko batean adierazten denez, 2023ko martxoaren 2ko 2023-1111 sarrera zenbakiaren bidez, Igor Gorritik idatzia aurkeztu du, kontratua bera autonomo gisa eduki ordez bere jabetzakoa %100ean izango litzatekeen SL batetara ondorengotza egiteko eskaera aurkeztuz. Txosten juridiko honetan adierazten denez, kontratistak aurkezturiko eskaera finean kontratistaren ondorengotza egoera bat da, eta ez kontratuaren lagapen bat eta ondorioz kontratuaren kaudimen baldintzak bete beharko lituzke. Hortaz, Kontratazio Teknikariaren iritziz, Igor Gorritik sortuko duen SL berri horrek honako baldintzak bete beharko lituzke:

- 1.- Arrisku profesionalengatik seguruia 300.000 eurotakoa izatea.
- 2.- Bai Igor Gorriti eta baita SL berria ere, biek solidarioki erantzutea kontratu honen exekuzioaz.

Igor Gorritik adierazi duenez, SL hau 2023ko uztailean jarriko du martxan.

2.- APLIKAGARRIA DEN LEGEDIA

- 3/2011 Legegintzako Errege Dekretua, azaroaren 14koa, Sektore Publikoko Kontratuen Legearen testu bategina onartzen duena



Usurbilgo Udala

Data: 2023/05/25

- Maiatzaren 8ko 817/2009 Errege Dekretua, Sektore Publikoko Kontratuen 30/2007 legea partzialki garatzen duena.
- Urriaren 12ko 1098/2001 Errege Dekretua, Administrazio Publikoetako Kontratuen Legearen Erregelamendu Orokorra onartzen duena.

Hori dela eta, azaroaren 28ko 2568/1986 Dekretuak onartzen duen Toki Erakundeetako antolaketa, funtzionamendu eta araubide juridikoaren Erregelamenduan (ROF delakoa), 175. artikuluan ezarritakoaren arabera, Osasun eta Gizarte Zerbitzuen Batzordeak 2023ko maiatzaren 17an egindako bilkuran, Itziar Basterrika eta Francisco Jose (Patxi) Suarez-en aldeko botoekin eta Josune Urkolaren abstentzioarekin, luzatutako irizpena kontuan hartuta, Udalbatzarra honako erabakia hartu du aho batez:

ERABAKIA

LEHENENGOA: Artzabal eraikinean kokatutako “Gure Pakea” jubilatutako tabernaren kontratuaren hirugarren luzapena egitea urte baterako, 2023ko ekainaren 6tik 2024ko ekainaren 5ra.

BIGARRENA: Jatorrizko kanona mantentzea, hots hileko 1.600 eurotan (%21eko BEZ-a 336 euro, guztira 1.936 euro).

HIRUGARRENA: Kontratataren ondorengotzea ontzat ematea, beti ere SL enpresa sortzerakoan honako bi baldintza hauek betez gero (enpresa sortu ondoren udalean bi agiri hauek aurkeztu beharko ditu):

- 1.- Arrisku profesionalengatiko segurua 300.000 eurotakoa izatea.
- 2.- Bai Igor Gorriti eta baita SL berria ere, biek solidarioki erantzutea kontratu honen exekuzioaz.

LAUGARRENA: Erabakia Igor Gorritiri, Gizarte zerbitzuetako sailari eta Kontu-hartzaitzari jakinaraztea.”

Honela izan da bozketa:

Aldeko botoak: Agurtzane Solaberrieta Mesa, Beñat Larrañaga Urdanpilleta, Lur Etxeberria Gurrutxaga, Joxe Mari Iribar Zapirain, Ainhoa Arrozpide Landa, Luken Arkarazo Silva, Itziar Basterrika Unanue, Josune Urkola Larrarte, Mirari Azurmendi Sorazu eta Carlos Pérez Fraisoli.

Beraz, erabakia aho batez hartu da.

8.- HAASETAKO A-59 (UGARTONDO) EREMUKO EQ.01 PARTZELAKO ZUZKIDURA-EKIPAMENDUA GAUZATZEKO UDALA ETA EREMUKO HITZARMEN-BATZARRAREN ARTEKO HITZARMENA ONARTZEA.



Usurbilgo Udala

Data: 2023/05/25

Alkateak adierazi du azken bilkuretan bai Ugartondoz bai Txirikordaz hitz egiten jardun dutela, azkenengo asteetan bertako sustatzaile edota kontratistekin izandako arazo eta gorabeheren berri eman dutela eta hitzarmen hau kokatzen dutela dio izan diren arazoak konponbidean jartzeko bide bezala.

Jarraian planteatzen dutena azaldu du. Bere garaian Usurbilgo Udalak eta Ugartondoko Juntak hitzarmen bat sinatu zutela esan du eremu horretako ekipamendua, alegia, Txirikorda ordaintzeko modua arautzen zuena. Hitzarmen hartan nagusiki lau gauza adostu zirela esan du:

- Eraikina egiteko eraikitze proiektua eta obraren zuzendaritza osoa Ugartondoko Hitzarmen-batzarrak enkargatuko eta ordainduko zuela.
- Usurbilgo Udalak zuzkidura-ekipamendua eraikitze obrak lizitatuko zituela.
- Hitzarmen-batzarrak diru kopuru finko bat ordainduko ziola Usurbilgo Udalarari eraikina egiteko.
- Hitzarmen-batzarrak eraikin publikoari dagokion partzela urbanizatzeko lanak egingo zituela.

Usurbilgo Udalarari eman beharreko kopurua 1.423.000 eurotan finkatu zela esan du, lau epe ezberdinetan ordaintzekoa:

- % 25 hitzarmena sinatzean.
- % 25, Usurbilgo Udalak ekipamendua eraikitze obra esleitzen zenean.
- % 25, eraikinaren egitura egikaritzen zenean.
- Amaierako % 25, eraikuntza-obrak amaitzen zirenean.

Alarma gorriak pizten hasi zirela esan du hirugarren ordainketa egiteko momentua iritsi eta hirugarren zati osoa ordaindu ez zenean. Gerora, laugarren zatia kobratzeko baldintza guztiak betetzen baziren ere, zati hau ere ez zela kobratu esan du.

Bestelako arazo batzuk ere azalarazi zirela esan du, hala nola, Ugartondoko urbanizazio lanak eten egin zituzten, lan horiek egiten ari ziren enpresei Juntak ez zitelako ordaintzen.

Hor ikusi zutela dio batzuekin eta besteekin hartutako konpromisoak ez zirela betetzen ari eta zorrak eragiten ari zirela bai Udalean bai urbanizazio lanak egiten ari ziren enpresetan. Egoera hori bideratu nahian hainbat bilera egin zituztela dio Juntarekin eta modua topatu dutela dio Juntak Udalarekin zituen konpromisoak bete ahal izateko eta momentu honetan Udalarekin dituen zorrak ordaindu ahal izateko. Aipatutako guzti honek dakarrela dio aurretik zegoen hitzarmena aldatu beharra.



Usurbilgo Udala

Data: 2023/05/25

Hitzarmen honetan bi aldaketa nagusi ahalbideratzen dituztela esan du. Juntak Udalarekin 411.500 euroko zorra duela eta diru hori ordaintzeko modua zehazten dela esan du, klausuletako 2. puntuari zehazten den moduan. Alde batetik, diru horren zati bat bere jabetza eta proportzioen arabera Sukiari dagokiona da eta bestea Jaureguizar-i, beraz, zehazten dena da modu independente batean bakoitzak ordaintzea Udalarekin duen zorra.

Batzarkideek Hirigintza batzordearen irizpena aztertu dute eta gehiengoz onartu dute, honela dio:

“Esp. Zenbakia: HZ.02/2020-0126

AURREKARIAK

Usurbilgo Udalak, egungo udal beharrak aztertu ondoren, Hiri Antolamenduko Arau Subsidiarioetako A-59 (Ugartondo) Eremuko EQ.01 partzelako ekipamendu publikoko eraikinaren erabilera zehaztu zuen: zuzkidura-bizitokia izango da, eta aurreproiektu bat egin zueb eraikinaren eraikuntza-tipologia zehazteko.

Alderdien artean hainbat bilera egin ondoren, ekipamenduko eraikina eta lurzatiaren urbanizazioa egin ahal izateko modua adostu zuten, eta honako irizpide hauek ezarri ziren:

- Eraikina egiteko eraikitze proiektua eta obraren zuzendaritza osoa Ugartondoko Hitzarmen-batzarrak enkargatuko eta ordainduko du.
- Usurbilgo Udalak zuzkidura-ekipamendua eraikitze obrak lizitatuko ditu.
- Hitzarmen-batzarrak diru kopuru finko bat ordainduko dio Usurbilgo Udalari eraikina egiteko.
- Hitzarmen-batzarrak eraikin publikoari dagokion partzela urbanizatzeko lanak egingo ditu

Gauzak horrela, Hiri Antolamenduko Arau Subsidiarioetako A-59 (Ugartondo) eremuko EQ.01 partzelan aurreikusitako zuzkidura-ekipamenduari dagozkion eraikuntza-obra eta aipatutako partzelaren urbanizazio-obra finantzatzeko eta gauzatzeko, Hitzarmena izenpetu zuten 2020ko ekainaren 19an Usurbilgo Udalaren eta eremuko Hitzarmen-batzarraren artean.

Hitzarmenaren seigarren klausulan erabaki zen Hitzarmen-batzarrak 1.423.000 € ordainduko zizkiola Usurbilgo Udalari, eta zazpigarren estipulazioan Hitzarmen-batzarrak zenbateko hori epe hauetan ordaintzeko konpromisoa hartu zuten:

- % 25 hitzarmena sinatzean.
- % 25, Usurbilgo Udalak ekipamendua eraikitze obra esleitzen duenean.



Usurbilgo Udala

Data: 2023/05/25

- % 25, eraikinaren egitura egikaritzen denean.
- Amaierako % 25, eraikuntza-obrak amaitzen direnean.

Hala ere, azken ehunekoaren ordainketa Ugartondon eraikitzen ari ziren bizitegi-eraikinaren lehen erabilerako lizentzietan lotu zitzaizkien. Beraz, ekipamendu osoa ordaindu arte, Udalak EZ luke bizitegi-eraikinaren lehen erabilerarako lizentziarik emango.

GAUR EGUNGO EGOERA

Gaur egun, Ugartondoko Hitzarmen-batzarrak 411.500€ ordaindu behar dizkio Usurbilgo Udalari, eta, etxebizitza-eraikinaren azken eraikuntza-obrak, E blokea, amaituta dago, lehen erabilerarako lizentzia 2023ko martxoaren 23an eskatuz.

Ugartondoko Hitzarmen-Batzarra Usurbilgo Udalak eta bi jabeek osatzen dute: Construcciones Sukia Eraikuntzak S.L.(SUKIA) eta Jauregizar Promoción y gestión Inmobiliaria S.L. (JAUREGIZAR). Jabe horiek, apirilaren 17an egindako bileran, Usurbilgo Udalarekin duten zorra ordaintzeko modu ezberdinak planteatu zituzten.

SUKIAk konpromisoa hartu zuen Usurbilgo Udalari zuzenean 95.981,35€ ordaintzeko, eta Jauregizar SLk ordainketa lotu zuen E blokeko etxebizitzaren salmentatik jasoko zituen onurekin.

Ordaintzeko modu berriak dakar, alde batetik, 2020ko ekainaren 19an gauzatuak hitzarmenaren zazpigarren klausula aldatzea eta, bestetik, jabe bakoitzak zorra modu independentean ordaintzea ahalbidetzea.

Ondorioz, alderdiak akordio batera iritsi dira ekipamendu publikoa finantzatzeko, eta honako hitzarmenean jaso dute:

Usurbilen, 2023ko maitzaren ...an

En Usurbil a ...de mayo de 2023

BILDURIK

REUNIDOS

ALDE BATETIK:

DE UNA PARTE:

Agurtzane Solaberrieta Mesa anderea, Usurbilgo Udaleko alkate-udalburua den aldetik, Udaltzaren 2023ko maitzaren 25ean hartutako erabakiaren arabera dituen eskumenekin bat etorritik.

Dña **Agurtzane Solaberrieta Mesa**, en su calidad de Alcaldesa-Presidenta del Ayuntamiento de Usurbil, de acuerdo con las atribuciones que tiene conferidas conforme al acuerdo plenario de fecha 25 de mayo de 2023.

BESTETIK:

DE OTRA PARTE:



Usurbilgo Udala

Data: 2023/05/25

..... jauna, Usurbilgo Arau Subsidiarioetako 59 "Ugartondo" eremuko Hitzarmen-batzarreko presidenteak, Batzar Orokorrak 2020ko ekainaren 15ean hartutako erabakiaren arabera dituen eskumenen arabera.

RAQUEL SALCEDO SASTRE anderea, JAUREGUIZAR Promoción y Gestión Inmobiliaria S.L. enpresaren ordezkaria den aldetik (IFK: B48472500.; egoitza soziala: Quintana 6-behea, 48007 Bilbo), Bilboko Javier Vinader Carracedo notario jaunaren aurrean 2017ko irailaren 29an emandako ahalorde-eskrituraren arabera (protokolo-zenbakia: 1204).

